



Desde hace más de 50 años  
empresas petroleras nacionales e internacionales  
extraen petróleo de las áreas de la Amazonía  
con mayor biodiversidad del planeta,  
amenazando la vida de las comunidades indígenas  
con la complicidad del Gobierno ecuatoriano.

Son las denominadas: **Zonas de Sacrificio.**

# ZONA WAO

## IKASMATERIALA

# FITXA TEKNIKOA

*Medicus Mundi Gipuzkoa, eta Medicus Mundi Arabaren proiektu bat*

**Ekuadorko Partnerra:** Acción Ecológica

**Finantzatzailea:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

**Ekoizleak:** EL SANTO Films, IZAR Films

**Zuzendaritza:** Nagore Eceiza Mujika

**Elkarrizketatuak:** César Eduardo Angamola, Jadira Caiga, Yato Omaca, Mima Omehua, Araba Umewai, Nemonte Wareka, Diocles Zambrano

**Gidoia:** Nagore Eceiza

**Ekoizpena:** Izaskun Arandia, Nagore Eceiza

**Argazkia:** Nagore Eceiza

**Muntaia:** Nagore Eceiza

**Soinua:** Andrea Ballesteros

**Musika:** Hara Alonso, Ana Malitzin Cortés

**Filmaketa lekua:** Ekuadorko Amazonia

**Ekoizpen-urtea:** 2024

**Generoa:** Dokumentala

**Iraupena:** 25 min.

**Herrialdea:** Espainia

# SINOPSISIA

50 urte baino gehiago daramatzate petrolio konpainia nazionalak eta nazioartekoek planetako bioaniztasun handieneko Amazoniako guneetatik petrolio ateratzen, komunitate indigenen bizitzak mehatxatuz, Ekuadorko Gobernuaren konplizitatearekin. SAKRIFIZIO EREMU izenez ezagutzen dira.



# FILMA IKUSI AURRETIK...

## A. Izenburua

---

### ZONA WAO

Hau da ikusiko duzun filmaren izenburua.

Bizpahiru aldiz irakurri eta pentsatu:

Zer iradokitzen dizu izenburu honek?


Zer edo nortzuk izan daitezke filmeko

protagonistak? Non egongo da girotuta?

Zer uste duzu lortu nahi dela film honekin?



## B. Kartela



Desde hace más de 50 años  
empresas petroleras nacionales e internacionales  
extraen petróleo de las áreas de la Amazonía  
con mayor biodiversidad del planeta,  
amenazando la vida de las comunidades indígenas  
con la complicidad del Gobierno ecuatoriano.

Son las denominadas: **Zonas de Sacrificio.**

# ZONA WAO

IDEA ORIGINAL: MEDICUS MUNDO GIPUZKOA - MEDICUS MUNDO ARABA  
DIRECCIÓN DE FOTOGRAFÍA: NAGORE ECEIZA CAMARERO DE SEGUNDA UNIDAD: CHRISTIAN OBANDO - NICOLÁS RODRÍGO DIRECTOR DE ACTORES: ANDREA BALLESTEROS  
MONTAJE: NAGORE ECEIZA MÚSICA: RARA ALONSO - ANA MALITZIN CORTÉS VENTURA Y MEDICUS DE SONIDO: KOLDO CORELLA COMPOSICIÓN DE SONIDO: NAGORE ECEIZA DISEÑO: WALLIN STUDIO  
NARRADOR: CHRISTIAN OBANDO TRANSCRIPCIONES: IZASKUN ARANDIA - FREDDY CAIZA - LARRY MOE - ANDY GUZORTA - MARITZA IYÁ  
PRODUCCIÓN Y DIRECCIÓN: ACCIÓN ECOLÓGICA - MEDICUS MUNDO GIPUZKOA - MEDICUS MUNDO ARABA DISTRIBUCIÓN: SELECTED FILMS DISTRIBUTION  
DIRECCIÓN DE PRODUCCIÓN: IZASKUN ARANDIA PRODUCCIÓN TELEVISIVA: EL SANTO FILMS - IZAR FILMS DIRECCIÓN ALTERNATIVA: NAGORE ECEIZA

medicamundo

medicamundo

E

EL SANTO FILMS

IZAR FILMS

EL SANTO FILMS



IZAR FILMS

*Zer iruditzen zaizu? Zer iradokitzen dizu kartel honek? Zertaz ari zaigu?*

Orain, ausartu hipotesi batzuk egiten. Hartu post-it bat eta idatzi bururatzen zaizun guztia.

Gero, post-itak horma-kartulina batean itsatsi eta utzi agerian ikasgelan, aurrerago erabiliko ditugulako.

Begiratu berriro kartelari. Galderarik egiten diozu zeure buruari? Idatzi beste kolore bateko post-it batean.



## C. Kontzeptu batzuk argitzen

---

Hasteko, laster ikusiko duzun Zona Wao filmarekin lotura estua duten kontzeptu batzuk argitu behar ditugu. Kontzeptu horiek ezagutzeak, kartela aztertzearekin batera, filmaren gaia argiago ulertzen lagunduko dizu. Bilatu informazioa edo galdetu kontzeptu horiei buruz.

Talde txikietan, azaldu zuen hitzekin beheko taulako kontzeptu bakoitzaren esanahia. Ondoren, zuen esanahiak kontrastatu klaseko gainerakoekin.



Azkenik, batera aukeratu kontzeptu bakoitzari buruz gehien gustatzen zaizuen definizioa.

**DOKUMENTALA**

**ERAUZTEKO INDUSTRIAK**

**INDIGENA**

**AKTIBISTA**

**INGURUMEN-AKTIBISMOA**

**BIOANIZTASUNA**

**SAKRIFIZIO EREMUA**

**ANTZINAKO BIZITZA**

**PETROLIO-METXEROA**

**GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEAK**

**NAZIOZ GAINDIKO ENPRESAK**

**MENDEBALDEA**



## **D. Ezagutu mundua!**

Ondoren, ikerketa-lan bat egingo dugu, eta, horretarako, 4 talde osatuko ditugu. Talde bakoitzak gai bat ikertuko du. Hauek dira gaiak:

1 Taldea: Waorani komunitatea

2 Taldea: Petrolio-enpresak

3 Taldea: Amazonia

4 Taldea: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia


Talde bakoitzak 6-8 diapositibako aurkezpen batean jasoko du informazioa. Aurkezpen guztiak dituzuenean, denak elkartu, eta dokumentu-aurkezpena osatuko duzue.



## E. Pertsonaiei buruz

Filma ikusten duzuen bitartean, hurrengo xehetasunei erreparatu. Xehetasun horiek oso baliagarriak izango zaizkizue zenbait gairi buruz hausnartzeko.

- Benetakoak ala fikziozkoak dira filmeko pertsonaiak?
- Zenbat emakume ateratzen dira? Eta zenbat gizon?
- Zer egiten dute emakumeek? Eta gizonek?
- Zein gunetan ateratzen dira emakumeak: espazio itxietan edo irekietan? Eta gizonak?
- Baldintza berdinetan bizi al dira emakumeak eta gizonak gizarte horretan?
- Zer osasun-arazo aipatzen dira eta nori eragiten diote?
- Zer alderditan aldatu da komunitatearen bizimodua, elikatzeko modua...?
- Haurrak ateratzen dira? Zertan jolasten dira neskak? Eta mutilak?
- Nork du erabakitzeke ahalmena?
- Nork du baliabideak eskuratzeko aukera?



# FILMA IKUSI ONDOREN...

## A. Eta gure hipotesiak?

Filma ikusi duzunez, irakurri berriro kartelari buruzko lanketan idatzitako post-itak. Ondoren, banatu post-itak aurkeztutako hipotesiak bete diren ala ez diren kontutan hartuta.

Orain, partekatu gainerako ikaskideekin eta hitz egin hipotesien emaitzei buruz.

## B. Eta gure dokumental aurkezpena?

Jarri berriro ikerketa-talde txikian. Inprimatu ikerketen aurkezpena eta moztu diapositibak, eta, dokumentala ikusi duzunez, antolatu diapositibak bertan ikusi duzuen informazioa kontuan hartuta.

Zerbait gehitu nahi diozue aurkezpenari? Zerbait kendu nahi duzue?

---

## C. Galderei berriro ekin

Filman zehar erreparatu behar zenieten galderetara itzuliko gara. Lehenik bikoteka, eta gero denak batera, zenbat informazio eta zenbat xehetasun gogoratzeko gai zareten ikusiko dugu. Bi minutu dituzue ideia zaparrada bat egiteko, elkarrekin, arbelean!

- Benetakoak ala fikziozkoak dira filmeko pertsonaiak?
- Zenbat emakume ateratzen dira? Eta zenbat gizon?
- Zer egiten dute emakumeek? Eta gizonek?
- Zein gunetan ateratzen dira emakumeak: espazio itxietan edo irekietan? Eta gizonak?
- Baldintza berdinetan bizi al dira emakumeak eta gizonak gizarte horretan?
- Zer osasun-arazo aipatzen dira eta nori eragiten diote?
- Zer alderditan aldatu da komunitatearen bizimodua, elikatzeko modua...?
- Haurrak ateratzen dira? Zertan jolasten dira neskak? Eta mutilak?
- Nork du erabakitzeko ahalmena?
- Nork du baliabideak eskuratzeko aukera?



## D. Dokumentala

DOKUMENTALA ikus-entzunezko lan bat da, errealitatearen zati bat gertakari, egoera eta pertsonaia errealeen bidez irudikatzen duena, eta informazioa, pedagogia edo entretenimendua helburu duena.

*Zure ustez, definizio hori bat dator Zona Wao filmarekin? Arrazoitu zure erantzuna:*



## E. Mezua deszifratzen

Hurrengo esaldietan dauden hutsuneak betetzeko beheko hitz egokiak aukeratuta, dokumental honen egileek hitzez hitz adierazi duten mezua deszifratuko duzu:

Gure dokumentalaren bidez, Repsolen (...1...)-jarduerak komunitate honetan, baina batez ere (...2...)engan, izan duen eragin negatiboari buruzko (...3...) sortu nahi dugu, bai (...4...)-arazoengatik (minbiziaren gorabeherak), bai familia-arazoengatik, bai arazo (...5...) edo sozialengatik.

**gizonak**

**lana**

**jasangarri**

**osasun**

**erauzketa**

**kontzientzia**

**ekonomiko**

**emakume**

**errespetua**

**aktibistak**

Mezua deszifratu ondoren, iruzkindu gainerakoekin bertan aipatutako gaiei buruz duzuen iritzia:

*Zinegileek kontzientzia sortzea lortu dutela uste duzue? Zergatik?*

*Zuen ustez, eragin negatiboa gehiago dagokie emakumeei gainerako biztanleei baino? Zergatik?*



# F. Ba al zenekien...?

Dokumentalaren hasieran fotograma hau agertzen da. “*Ba al zenekien...?*” deituko diogu.



“*Ba al zenekien...?*” hauek gai bati buruzko gauza bitxiak aipatzen dituzte. Orain hobeto ezagutuko dugu waorani komunitatea. Horretarako, esteka bat utziko dizugu, eta bertan informazioa aurkituko duzu “*Ba al zenekien...?*” bat sortzeko.

Jarri binaka, paperean idatzi eta gainerakoen aurrean aurkeztu. Horrela, guztion artean hobeto ezagutuko dugu komunitate hau.

[https://www.territorioindigenaygobernanza.com/web/necu\\_06](https://www.territorioindigenaygobernanza.com/web/necu_06)



## G. Fotogramak

**G.1.** Dokumentaletik fotograma batzuk atera ditugu. Begiratu eta jarri izenburua bakoitzari.



# 1. Izenburua: ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●



## 2. Izenburua: ●●●●●●●●●●●●●●●●



### 3. Izenburua: ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●



#### 4. Izenburua: ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●



5. Izenburua: ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●



6. Izenburua: ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●





9. Izenburua: • • • • •



10. Izenburua: • • • • •

**G.2.** *Horien guztien artean, dokumental honetako fotograma adierazgarriena aukeratu beharko bazenute, zeinekin eratuko zinatekete? Zergatik?*

# H. Orbain bat

---

**H.1.** *Ba al dakizu analogia bat bi gauza edo ideien arteko ustekabeko konparazioa egiten duen baliabide literarioa dela?*

Adibidez: Maxus bidea oihanaren bihotzean barneratzen den orbain sakon bat da.

Pentsatu zer esan nahi duen esaldi honek. Begiratu argazkiari, hausnartzen lagun diezazukeelako.



Binaka aztertuko dugu orain analogia horren indarra (Maxus bidea eta orbain bat alderatzen direna).

- Zer da orbain bat? Zergatik sortzen dira orbainak?
- Zer da orbain sakona?
- Egokia iruditzen zaizu errepide bat orbain bat dela esatea? Arrazoitu zure erantzuna.
- Errepide batez gain, zer konpara genezake orbain batekin?
- Baduzu orbainik gorputzean? Zer dela eta? Sakona dela uste duzu?
- "Maxus bidea oihanaren bihotzean sartzen da". Zergatik uste duzu aukeratu dutela "bihotza" eta ez beste organo bat figura erretorikoa eraikitzeko? Birikekin berdin funtzionatuko zuen?
- Zein da zure herri edo hiriaren bihotza?

**H.2.** *Orain, irudimena askatzea eta analogiak sortzea dagokizue, argazki hauetan oinarrituta:*



# I. Lau haizetara!

---

Dokumental honen helburua waorani komunitatea, eta bereziki emakumeak, bizitzen ari den errealitatea salatzea eta gure erantzukizunari buruz kontzientziatzea da. Ekimen hau babestu nahi duzu? Aurrera ba!

Jarraian, dokumentalean agertzen diren mezuak erakutsiko dizkizugu. Aukeratu bat edo gehiago eta sortu esaldiak gero sare sozialetara igo eta partekatu ahal izateko. Pentsatu eta erabaki nola irits daitezkeen pertsona gehiagorengana eta bota mezuak lau haizetara!

*"Petrolioaren erauzketak emakumeen aurkako indarkeria mota berriak ekarri ditu, eta arrakala soziala areagotu: gizonak sistema berri batean gailentzen dira, non dirua beharrezko bihurtzen den behar berriak eskuratzeko, hala nola alkohola eta mende baldeko produktuak".*

*"Petrolio-erauzketako eremuetan, 4 minbizi-kasutik 3 emakumeetan gertatzen dira, ingurune kutsatuetan egunero egiten dituzten lanak direla eta".*

*"2023ko urriaz geroztik, Europar Batasunak belar artifizialeko kautxuaren desagerpena ezarri du, oso kutsagarria delako".*

*"Mendebaldearen kontsumo arduragabea lurralde indigenetako baliabideak kontrolik gabe erauztearen eta antzinako bizi-sistemak iraungitzearen arrazoi zuzena da".*

*"2023ko abuztuaren 20an Ekuadorren egindako herri-kontsulta historikoan, BAI YASUNIRik irabazi zuen.*

*Herriak petrolioa lur azpian uztea erabaki zuen, planetako bioaniztasun gehien duen parkean.*


*Gobernuak urtebeteko epea du 43. Blokeko petrolio plataformak desegiteko.*

*Kontsulta egin eta urtebetera, erauzketak normaltasunez jarraitzen du."*



# J. Postala

Azkenik, postal bat idaztea proposatzen dizugu. Bertan, Medicus Mundi bidez, zure elkartasuna eta babesaren helaraz diezaiokezu waorani komunitateari, baita kontsumo arduratsuari buruz proposatu ahal izan dituzun konpromisoak ere.



Eva Schmidsederen irudia Pixabayen

